

Berrikuntzaren kultura, kultura-proiektuetan

2025-05-07

PLAZA

Ikasturteko azkeneko saioan hiru kultura-proiektu izan genituen gonbidatu, eta elkarren argitan irekizioten bidea berrikuntzaren kontzeptuari. Hain zuzen ere, “proiektu” eta “berrikuntza” hitzek kulturaren ekosisteman duten konnotazioez, zentzuaz, eta beharrezkotasunaz jardun zuten. Gertuko testuingurura etorrita, anbizioaren eta handinahiaren arteko mugez, eta berri beharraren beharrez tradizioa erabiltzeaz ere hitz egin zuten partaideek.

ZAZPI JAUZI

1. Terminologiari begira, “proiektu” hitza erakundeekin lotzen dugu. Hitz teknokratikoa da: erabili beharra dago dirua jaso nahi baduzu; aldiz, “artelan” erabiltzen baduzu, inork ez dizu dirurik ematen. Eta agian komeni da kultur-proiektuei buruz baino, kulturari berari buruz hitz egin. **Jakintza partekatzeko leku bat da kultura, eta ongizatearekin daukan lotura landu beharra daukagu.**

2. Kulturak askapenerako bidea ematen digu, gure historiari lotuta dagoelako. Eta talde baten parte izatea ahalbidetzen digu. Eguneroko bizitzaren, ohikotasunaren, konbentzioaren... parte ez izateko aukera ematen digu. **Kultura eta artea dira gure “esistitzeko aukera” praktikan jartzeko daukagun bidea.**

3. “Berrikuntza” hitzarekin ere kontuz ibili beharra dago. Adibidez, nahi eta nahiez berritzaile izan beharrarena asko ikusten da azkenaldian. Hitzak perbertsio bat dakar, eta modu artifizialean ulertu daiteke, salmentarako estrategia huts bat gogorarazteraino. **Gizartearen aurrerabidea bera zalantzan dagoen garaiotan berrikuntzaz behin eta berriz aritzea arriskutsua da.**

4. Guk, inork kontatzen ez dituen istorioak kontatzen ditugu. Hori betidanik egin da, eta tradizioarekin du lotura. **Baina aldi berean erabat berritzailea da.** Gure eginkizuna espazio askeak sortzea da, eta espazio horietan burujabeak izatea. Horretarako gure begirada aldatu behar dugu, eta begirada aldatzea bera da berritzailea.

5. Zerk bultzatzen gaitu euskaraz mintzatzera? Arteak. Arte eta kultura sendo batek. **Ez badugu gurea den arte bat, ez dago euskararik.**

6. Une honetan ez dugu kultur-erakunde nazionalik. Ez dago norabidea markatuko duen erakunderik, eta hori egiteko gaitasuna dutenei ez zaie interesatzen. Kulturak eraikitzen du komunitatea. **Kultura da komunitatea josten duen tresna.**

7. Berritzailea izatea, adibidez, BEC edo Nafarroa Arena betetzea da? Anbiziotsuak izan behar dugu, baina anbizioa ondo kanalizatzen jakin behar dugu. Hau da, **ez dugu BEC betetzeko anbiziorik behar, gure kultur-ekosistema aberasteko baizik.**